

EKIMENAK

Azaroak 17, eguztena: **emakumeenganako film laburren emanaldia eta foruma** Kulturaten, 19:00etan, Norma Vazquez (psikologoa eta emakumeenganako indarkerian aditua) dinamizatzaileraren eskutik.

Azaroak 23, martitzena, **eztabaida foroa**. Emakume Txokoan, 18:00etan.

Jabetze eskolaren barruan, lehen eztabaida foroa antolatu dugu; ikastaroez haratago joateko asmoarekin hiruhileko bakoitzean gai bati helduko diogu eta eztabaida feminista bultzatuko dugu. Oraingoan Maitena Monroy-k (autodefentsa feministan aditua eta Bizkaiko Emakumeen Asanbladako kidea) dinamizatuko du eztabaida, emakumeon aurkako indarkeriaren gaiaren inguruan.

Foro bakoitzean, parte hartzaileek erabakiko dituzte hurrengokoetan landuko diren gaiak eta dinamikak. Horregatik eta antolaketa errazteko bertan parte hartzeko izena ematea komenigarria da.

Azaroak 25, eguena, **elkarretaratzea**. Herriko plazan, 19:00etan:

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarte eguna dela eta, elkarretaratzea egingo da herriko plazan, 19:00etan, emakumeenganako indarkeriaren aurkako Plataformak deituta.

